



2021/2022 denboraldia

2. ZIRKULARRA

ENTRENATZAILEEN GUTXIENeko TITULAZIOA

Euskadiko Futbol Federakundearen Arautegiaren 62. artikulua ondorengoa dio: **“Klub guztiek, bere kirol egitura osotzen duten taldeen kategoriara dagokion titulazioaren jabe den entrenatzaile bat eduki beharko dute, kategoria hauetako azkeneko mailetan dauden taldeentzat izan ezik.”**

Beraz, artikulua horren arabera, ondorengo mailetan entrenatzaile tituluduna eduki behar da:

MAILAK	GUTXIENeko TITULAZIOA
Ohorezko Erregionala	Kirol Teknikaria, II. Maila edo UEFA A
Gorengo Maila	Kirol Teknikaria, II. Maila edo UEFA A
Ohorezko Jubenila	Kirol Teknikaria 1. Zikloa, I.Maila edo UEFA B
Ohorezko Kadetea	Kirol Teknikaria 1. Zikloa, I.Maila edo UEFA B
Ohorezko Infantila	Kirol Teknikaria 1. Zikloa, I.Maila edo UEFA B
Emakumezkoen Ohorezko Erregionala	Kirol Teknikaria 1. Zikloa, I.Maila edo UEFA B
Emakumezkoen Ohorezko Kadetea	Kirol Teknikaria 1. Zikloa, I.Maila edo UEFA B
Emakumezkoen Ohorezko Infantila	Kirol Teknikaria 1. Zikloa, I.Maila edo UEFA B

Gainontzeko maileri dagokienez, hau da, 1. Erregionala, 1. Jubenila, 1. Kadetea, Infantil Txiki, 1. Infantila, Emakumezkoen 1. Kadetea eta Emakumezkoen Infantil F-8, ez da beharrezkoa entrenatzaile tituluduna edukitzea, baina maila guztietan entrenatzaile tituluduna edukitzeko klubaren aldetik esfortzua egingo balitz, Gipuzkoako futbolaren hobekuntza lortuko litzateke.



Beraz, horren ondorioz, Gipuzkoako Futbol Federazioko Zuzendari Batzordeak 2010eko abenduaren 16ko bileran hurrengo denboraldirako ondorengoa erabaki zuen:

“Entrenatzailearen lizentzia eta kontratuaren bideratzea jokalarien lizentziekin batera edo lehenago egin beharko da; honela, indarrean dagoen araua zehatz-mehatz beteko da” .

Donostia, 2021eko abuztua

GIPUZKOAKO FUTBOL FEDERAZIOA
FEDERACION GUIPUZCOANA DE FUTBOL


Iñigo Letamendi Artetxe
Idazkari Nagusia-Secretario General

